

BANAKAKO BEHAKETAN OINARRITUTAKO PEDAGOGIA

Askotan esaten dugu haur-eskolan arreta pertsonala eskaini behar diegula haurrei. Esan bakarra ez, helburutzat hartzen dugu bakoitzaren berezitasunak eta beharrak kontuan harturik haur bakoitzari pertsonalki erantzutea.

Haur txikien kontuekin ari garenean premia hori oso azalean dago.

Baina, zer da haur bakoitzari erantzutea? Egin ahal daiteke? Haur honi dedikatuz gero, besteak zer?... Banan-bana egiten den lan horretan nola lortu hamabiko talde bati eskaini behar diogun atentzioa ez gutxitzea? Edo zortziko taldean? Edo ...

Zein da gakoa? Zalantzarik gabe, haurraren munduan gertatzen ari denari *entzutea*. Eta entzutea esaten denean, adi egotea esan nahi du, gure zentzumen guztiekin haurrarentzat egotea. Behatzaile izatea bai, baina behatzaile aktiboa izatea. Hau da abiapuntua. Egunean zehar etengabe sortzen zaizkigu laguntzeko motiboak, mila eratakoak, bereziak, pertsonalak. Egoerak eta gertaerak ez dira denentzat berdinak eta soluzioak ere ez. Hemen adibide batzuk:

- *Ane, aita agurtu eta triste gelditu da. Besoetan hartu dut goxo-goxo eta jolasean sartu naiz berarekin, lasaituz: eskumuturretik txotxongilo txikia atera diot, bi keinu egin eta akabo bere pena. Orain txotxongiloa berari utziko diot jolas dadin.*
- *Gustura daude taldean jolasten, baina Junek logalea dauka; besteen jolasa eten gabe, koltxoneta ondoko logelan ipini eta lotan jarri dut, goxatzen dudan bitartean.*
- *Julen belarria ukitzen hasi da eta gauzak botatzen: aspertzen ari den seinale. Eta aspertu baino lehen materiala jaso eta bestea aterako dugu: kaxak eta txirlak. Hori bai gustatzen zaiola! Jada aldatu zaio aurpegia!*
- *Garazi zuloak dituen kartoizko kaxa batekin dabil jostatzen. Zuloak bilatzen ditu eta handik pilota txikia botatzen du behin eta berriro, baina bere interesa galtzen ari da. Kartoian egindako zuloak gero eta handiagoak ari dira egiten. Hausten ari zaio jostailua, eta bere esperientzia egarria agortu da. Hori ikusita, erdian zuloa duen aulkia eskaini diot jolasarekin jarraitu nahi badu, aukera izan dezan. Eta baita jarraitu ere! Bere jolasa berriro bizkortu da, orain gainera aurkikuntza berriak eginez aulkiaren altuera dela eta.*
- *Garaziren pozarekin kutsatuta Izarrek ere Garaziren pilota nahi du, pilota eskutik kentzera abiatuz. "Izar, itxaron, hemen badago beste pilota, tori, hau zuretzako" Orain biek jolastuko dute.*

- *Leirek begiratu egin nau ondokoari danborrarekin jo baino lehen: “Ez Leire, ez”. Begirada hutsarekin berak ulertu du. Nik berriz bere jokabide txalotuz muxu handi bat ematen diot eta berak galdutako panpina txikia atera diot nire poltsatik. Pozik doa, norbait jo behar zuela ahaztu zaio!*

Haurrak ezagutu, nola dauden jakin eta zer nahi edo behar duten begiratz, errespetatuz eta maitatuz, erraza da banakako heziketa egitea. Ez dugu beste munduko gauzarik egin (edo bai?)

Taldean bizi gara baina bakoitzari erantzun pertsonala eman diogu. Haurrak horrekin fidatzen dira eta lasai eta pozik daude.

Banakako behaketan oinarritutako pedagogia dela diogu, erlazio pertsonal hauek ez baitira mugatzen aldatzeko momentuetan bakoitzari egiten dizkiogun kilimei.